

Kostuen Egitura

Gure negozio ereduaren koste finkoak bi izango litzateke: alde batetik, webgunea mantentzeko gastuak, hau da, zerbitzarien ordainketa, segurtasun-sistemak eta eguneraketak. Bestetik, langileen soldatak, proiektuaren eguneroko funtzionamendurako ezinbestekoak direnak. Gastu hauek hileroko errepikatzen dira, eta gure zerbitzuaren egonkortasuna eta jarraikortasuna bermatzen dute.

Beste aldetik, kostu aldakorrek batez ere marketing eta publizitatea izango dira, Kanpainen intentsitatearen edo eskaera-mailaren arabera handitu edo txikitu daitezke, eta erabiltzaile gehiago erakartzeko edo proiektua denbora jakin batzuetan ikusgarriago egiteko erabiltzen dira.

